



## ARCCOk Donostiako Zinemaldira gonbidatzen zaitu

### ZOZKETAREN OINARRIAK

1.- ARCCO BERRI, S.L. sozietateak (IFK-B-75048603) Donostiako Irungo Plaza kaleko 6. zenbakian (20.011) dagoenak, sustapen-kanpaina bat egingo du: bezeroen artean **50 sarrera zozkatuko ditu Donostiako Zinemaldiaren 69. ediziorako.**

2.- Zozketan parte hartu ahalko dute Arcco Amara merkataritza-guneko dendaren batean erosketaren bat egin duten bezeroek, 2021eko irailaren 13tik 18ra bitartean (biak barne).

3.- Egindako erosketa bakoitzarekin, merkataria txartel bat emango dio bezeroari zozketan parte hartu ahal izateko. Paper hori zozketarako jarriko diren edozein kutxatan utzi beharko da.

Bi zozketa egingo dira (bata irailaren 16an eta bestea 20an), 10:00etan, Arcco merkataritza-guneko gerentzia-bulegoetan, une horretan ausaz aukeratutako bezero baten laguntzarekin. Ondoren, irabazleei pertsonalki deituko zaie, eta gerentzia-bulegora joan beharko dira sarrerak jasotzera. Identifikatu ondoren, bi lagunentzako sarrerak emango zaizkie, Donostiako Zinemaldiko emanaldietara joateko.

Saria ezingo da inolaz ere diruagatik trukatu.

Ezingo dute zozketan parte hartu Arcco merkataritza-gunearekin lan- edo merkataritza-harreman bat duten pertsonak, ez eta merkataritza-gunean lan egiten duten merkatariek eta langileek ere.

**4.-** Irabazleek beren irudi-eskubideak Arcco Berri, S.L.ri baimendu eta lagatzen dizkiote, eta, gainera, enpresa horrek irabazlearen izen-abizenak, bizilekua, herrialdea eta hiria erabili ahal izango ditu merkataritza-guneko barneko eta kanpoko publizitate-komunikabideetan argitaratzeko. Gainera, erabilera horrek ez du lortutako sariarekin loturarik ez duen beste eskubiderik sortuko. Irabazleak Arcco Berri, S.L.ri ez badio irudi-eskubideen inguruko baimenik ematen, irabazle horrek sariari uko egiten diola ulertuko da, eta, beraz, saria jaso badu, itzuli egin beharko du. Arcco Berri, S.L.k eskubidea izango du edozein unetan sustapen-ekintzaren baldintzak aldatzeko, baita baliogabetzeko ere, betiere arrazoi justifikatuak badaude.

**5.-** Arcco Berri, S.L. da datuen arduraduna, eta datuak indarrean dagoen legeriak eskatutako segurtasun- eta konfidentzialtasun-neurri guztiak betetzen dituen artxibo batean gordeko ditu, sustapen-ekintza hori kudeatzeko. Parte-hartzaileek eskubidea izango dute fitxategiaren parte izateko baimena eman eta eurei dagokien informazioa eskuratzeko, zuzentzeko, ezerezteko eta tratamenduari aurka egiteko. Eskubideak helbide elektroniko honetan baliatu ahal izango dira: [direccion@arccoamara.com](mailto:direccion@arccoamara.com), eskaerarekin batera NANaren fotokopia aurkeztuta. Jakinarazten dizugu datuak borondatez ematen direla eta Arcco Berri, S.L. merkataritza-sozietatearen titulartasuneko fitxategi batean sartuko direla, Datuak Babesteko Espainiako Agentzian behar bezala erregistratuta, eta fitxategi horren helburua izango dela sustapen-ekintza hori kudeatzea eta pertsonarekin komunikatzea.

**6.-** Zozketa honetan parte hartzeko oinarri hauek onartu egin behar dira, eta [www.arccoamara.com](http://www.arccoamara.com) webgunean daude eskuragarri .